# KANALAK

Planbide aplikazioa Apple Store eta Google Play Store izeneko plataformetan aurkitu daiteke. Plataforma hauen bidez, bezeroek gure aplikazioa deskargatu eta erabili dezakete. Hala ere, denda digital hauetan gure aplikazioa egoteko, hainbat kuota ordaindu behar ditugu. Hauek dira prezioak:

- **Google Play Console (Android)**:
  - Erregistratzeko kostua 25 €-koa da (behin bakarrik ordaindu behar da, aplikazioa martxan jarritako momentuan).
  - Honekin, aplikazioa igo, dirua irabazteko aukerak konfiguratu, eta Google Play Store-n argitaratzea kudeatu ahal izango dugu.

- **Apple Developer Program (iOS)**:
  - Urteko kostua: 99 €-koa da (urtero ordaindu behar da).
  - Harpidetza honek App Store-n argitaratzeko, garapen-tresna esklusiboak izateko, eta laguntza teknikoa jasotzeko aukera ematen du.

Kuotaz gain, denda digitalei komisioak ordaindu behar dizkiegu egindako deskarga eta transakzio bakoitzarengatik. Zehazki, erosketa bakoitzarengatik %30 jasotzen dute.

Bestalde, bezeroekin harreman gehiago edukitzeko eta gure diru-sarrerak handitzeko, hainbat jarduera eskainiko ditugu:

- Hitzaldiak: Gure aplikazioa nola funtzionatzen duen azaltzeko eta antolamenduari buruzko aholkuak emateko hitzaldiak prestatuko ditugu. Hitzaldi horiek edozein lan-eremutan, eskoletan eta enpresetan eskainiko ditugu, nahi duenak parte hartu ahal izateko. Bezeroek jarduera hori eskuratzeko ordaindu beharko dute, eta hitzaldiaren prezioa aldatuko da edukien arabera.

- Kolaborazioak osasun mentalezko asoziazioekin: Osasun mentalaren inguruko gaiak lantzen dituzten asoziazioekin kolaboratuko dugu. Horretarako, diruaren truke hizketaldi bat prestatuko dugu, bertan gure aplikazioak osasun mentalaren ongizatea nola azpimarratzen duen azalduz.

- Publizitatea: Gure aplikazioan publizitatea agertuko da. Horretarako, enpresa desberdinekin kolaboratuko dugu. Gure aplikazioan enpresa horien publizitatea azalduko da diruaren truke; hau da, erakunde horiek guri ordaindu beharko digute.

# KANALAK

Aplikazioan bertan, atal bat egongo da, Planbidek irudikatzen duenarekin zerikusia duten gomendioak jasotzeko. Adibidez, psikologoak, antolatzeko tresnak eta enpresak gomendatuko dira. Horretarako, guk enpresa horiekin kontaktuan jarriko gara, eta haiek atal horretan publizitatzeko, prezio zehatz bat ordaindu beharko dute.

